

25. UNITATEA

MEDIKUARENEAN



PROGRAMAZIOA: 25. UNITATEA

MEDIKUARENEAN

HELBURUAK	JARDUERAK	EDUKIAK	TREBETASUNAK							
			ENTZUM	IRAKUR	ELKAR	MINTZ	IDAZM			
<p>Galderak eta instrukzioak uler ditzake, eta jarraibide labur eta sinpleak jarraitu.</p> <p>Erantzun laburrak eman ditzake.</p> <p><i>Medikuarenean elkarrizketa bat izatea osasunari buruz.</i></p>	<p>Elkarrizketak irakurri eta antzekoak egin.</p>	<p><i>Lexikoa: gorputz atalak, gaixotasunak.</i></p> <p><i>Aditza: agintera</i></p> <p><i>Behar, ezin...</i></p>								

PROGRAMAZIOA: 25. UNITATEA

1. JARDUERA

Irakurri elkarrizketa hau eta binaka egin:



- Anbulategia, egunon...
- Kaixo, ordua nahi dut Arregi medikuarekin, mesedez.
- Esaidazu zure izena.
- Iñaki Fernandez Arruti.
- Bai, ordu daukazu gaur 12etan, zer moduz datorkizu?
- Oso ondo.
- Orduan Arregi medikuarekin gaur 12etan. Agur.
- Agur.

MEDIKUARENEAN

2. JARDUERA

Asma ezazu antzeko elkarrizketa bat. Anbulategira deitu eta ordua eskatzen medikuarekin. Binaka, elkarrizketa egin:

Harreragilea: _____

Gaixoa: _____

Harreragilea: _____

Gaixoa: _____

Harreragilea: _____

Gaixoa: _____

Harreragilea: _____

Gaixoa: _____

PROGRAMAZIOA: 25. UNITATEA


MEDIKUARENEAN

3. JARDUERA

Irakurri eta gero lagunari esan:



**Sukarra dut.
Likido asko edan behar dut eta
atsedena hartu.**



**Bizkarreko mina dut. Ezin naiz
etzanda egon.**

Masajea behar dut



**Zorabiatuta nago eta sabeleko
mina dut. Ezin dut ezer jan.**

Dieta egin behar dut.



**Belauneko mina dut. Belauna
handituta daukat. Ezin naiz ibili.**

Medikuarenera joan behar naiz.

PROGRAMAZIOA: 25. UNITATEA

MEDIKUARENEAN

4. JARDUERA

Irakurri elkarrizketa hauek eta binaka egin:



- Zer sentitzen duzu?
- Mina dut eztula egitean.
- Katarroa duzu eta ezin duzu edari hotzik edan.



- Zer sentitzen duzu?
- Gerriko mina. Ezin naiz mugitu.
- Plakak aterako ditugu zer duzun ikusteko.



- Zer sentitzen duzu?
- Mina dut besoan. Ezin dut mugitu.
- Erakuts iezadazu besoa. Pixka bat handituta dago. Plakak aterako ditugu.



- Non daukazu mina?
- Lepoan, ezin dut mugitu.
- Ez ezazu azkar mugitu. Poliki mugitu begar duzu. Har itzazu pilula hauek, bi pilula egunean eta etor zaitez bost egun barru.



- Non daukazu mina?
- Eskubiko belarrian, min handia dut.
- Infekzioa duzu. Jarabe hau har ezazu hiru aldiz egunean, zazpi egunetan. Gero etor zaitez niregana eta ikusiko dugu sendatu den ala ez.

PROGRAMAZIOA: 25. UNITATEA

5. JARDUERA

Irakurri elkarrizketa hau eta binaka egin:



-Kaixo, egunon. Zer moduz zaude?

-Ez nago ondo. Burukomina dut eta ez dut asko egiten dut.

-Orain ikusiko dugu. Ireki ahoa. Eztarria gorria duzu. Mina al duzu irenstean?

-Bai, pixka bat.


-Termometroa jarriko dizut. 39 gradu, sukarra duzu. Infekzio bat duzu. Har itzazu pilula hauek, 8 orduro pilula bat. Edan ezazu likido asko eta tratamendua bukatzen duzunean, etor zaitez berriro.



MEDIKUARENEAN

6. JARDUERA

Asma ezazu antzeko elkarrizketa bat. Binaka, elkarrizketa egin:



Medikua:

Gaixoa:

Medikua:

Gaixoa:

Medikua:
